

---

## Euskadiko Parke Teknologikoen Sareak lehen seihilekoan parkeetan ezarri diren sei erakunde berri aurkeztu ditu Parke Foroan

---

- **AVS Next, Faes Farma, MLC ITS Euskadi, Novaut, Proquinorte eta Satlink izan dira euren produktuak eta zerbitzuak ezagutzera eman dituzten topaketaren protagonistak**

**2021eko ekainaren 29an.** Euskadiko Parke Teknologikoen Sareak lehen seihilekoan parkeetan ezarri diren sei erakunde berri aurkeztu ditu gaur, Ongi Etorri Parke Foroa ekimenean. AVS Next, Faes Farma, MLC ITS Euskadi (Mugikortasun eta Logistika Klusterra), Novaut, Proquinorte eta Satlink izan dira euren produktuak eta zerbitzuak ezagutzera eman dituzten topaketaren protagonistak.

Euskadiko Parke Teknologikoen Sarearen topagunea da Parke Foroa, eta 580 konpainia baino gehiago biltzen dituen sareko erakundeen arteko ezagutza, lankidetzarako aukerak eta negozio-garapena sustatzea du helburu. Hasieratik, 10 edizio egin dira, 300 erakundek baino gehiagok hartu dute parte, eta hainbat merkataritza-akordio lortu dira bertan.

Héctor Calderónek, Euskadiko Parke Teknologikoen Sareko Lankidetzako eta Enpresei zerbitzua emateko zuzendariak, ongietorria eman die enpresa berriei, eta "sare horrek hazten jarraitzearen garrantzia" azpimarratu du, "Pandemiaren ondorioz izaten ari garen zailtasunak gorabehera, agerian geratu da berrikuntza-ekosistema gisa duen balioa".

### **Aurkezpenak eta aldeko topaketak**

Ekitaldia formatu birtualean egin da, eta enpresa bakoitzaren aurkezpen-erronda eta aldeko topaketak egin dira, elkarren arteko ezagutza eta erakundeen arteko lankidetzarako eta negozio-garapenerako aukerak sustatzeko.

AVS Next (Arabako Teknologia Parkea) enpresa liderra da espaziorako eta Big Sciencerako ekipo konplexu eta kritikoak diseinatzen eta garatzen, oso baldintza zorrotzak betez, kalitate-estandar altuekin.

FAES Farma (Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologikoa) 1933an sortu zen, eta nazioartean ibilbide luzea egin duen farmazia-konpainia da. Produktu farmazeutikoak eta lehengaiak ikertzen, ekoizten eta merkaturatzen ditu, eta herrialde askotara esportatzen du.

MLC ITS Euskadi-Mugikortasun eta Logistika Klusterraren (Arabako Parke Teknologikoa) eginkizuna bere kide diren enpresen eta eragileen garapena eta indarra bultzatzea da, berrikuntza, nazioartekotzea eta sektore-lankidetzak bultzatuz eta beste sektore batzuekiko sinergiak sustatuz.

Novaut (Arabako Parke Teknologikoa) industria-produktuak salerosteko eta produktu automatizatuak banatzeko plataforma da, besteak beste, robotika, hidraulika, energia, tresneria, informatika industrial, garraioa, etab.

Proquinorte enpresa (Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea), ikerketarako eta industriarako laborategiko materialaren salerosketan espezializatuta dago, mundu bioteknologikoan eta diagnostikoan, batez ere.

Satlink (Arabako Teknologia Parkea) 1992an sortua, satelite bidezko telekomunikazioetan espezializatutako ingeniari enpresa espainiarra da. Munduko liderra da arrantza-sektorerako soluzio teknologikoen hornitzaile gisa, arrantza eraginkorra eta jasagarria bermatuz.